

Reforma o revolución social

JON IURREBASO ATUTXA. :: 23/10/2018

¿Reforma de lo que un día soñamos y concreción de dicha reforma en lo que hoy y aquí es “posible” o seguimos apostando por la Revolución Socialista Vasca?

Erreforma ala iraultza soziala?

Hots, garai batean amestutakoa erreformatzea eta, gaur egun hemen “posible” denaz baliaturik, haren zehaztapena egitea (hau da, euskal/espainiar/frantses kapitalak baimentzen diguna) ala ondorio guztiekin Euskal Iraultza Sozialistaren aldeko apustuari eustea?

Erantsiko dugu, borrokatik jasotako umiltasunez, aldez aurretik, lehenengo aukerak porrot egingo duela. Gaur egun, ezta ongizate-estatuak ere ez du tokirik, sozialdemokraziaren urrezko eden amestua. Gizonezkoekiko eta emakumeekiko sobietar sistemak zituen abantailak uxatzeko asmoz fabrikatutako eta aspaldidanik zentzurik ez duen ongizate-estatu. Eszenaratzearren, Berlingo harresiaren erorketak inolako arazorik gabe desagertu litekeela erakutsi zigun. Kapitalaren etekin-tasak ez du tontakeriarik onartzen. Ez gaitezen inozo izan; sozialdemokraziaren balioa ordena burgesa arriskuan zegoen garaian izan zen. Orain, ordea, antzinako zentroa da, noizean behin “ezkerrera” jotzen duena hala nahi izanez gero.

Gaur egun ez dago espaziorik ezta demokraten jokoan jarduteko ere, demokrazia burgesa izan arren, kasu baterako, kapitalak ezin du onartu beraren superegiturako eragileak obrerismoaren jokoan erortzea. Gaur egunean, den-denek egon behar dute burgesiari interesatzen zaion argazkiaren barruan. Gaur egunean, eskuin muturrak, eskuinak eta zentro eskuinak eskuin zabala osatzen dute, eta benetako karikatura horretatik ez da lurralde bat ere salbatzen. Edonola ere, biziagotzen diren jokabide batzuek eskuin aldera egingo dute beti. Azken batean, ordena, beldurra eta nahi den ongizatea, baina behar beste lagun zapalduz.

Beraz, aro historikoa eta lekuak direnak direlakoak, amaituezinezko dilemarekin egingo dugu topo beti ezkerraren espektro zabalean: posibleari ekingo diogu ala jakingabeko irteera duen kalezulo utopikoan sartuko gara? Tranparekin egindako galdera/planteamendua, hainbestearino, non batzuetan (gehienetan zoritxarrez) dilema planteatzen baita benetako interesdunak, hau da, langile klasea eta herritar xumeak, egosten ari denaz jakitun izan gabe.

Saiatuko gara azken urteotako euskal borrokaldiaren errepasso laburra egiten. Azken hirurogei urteetan egindakoa aztertzeke intsistentzia handiari erreparatuz gero, errebisionismoarekiko duten tema histerikoa hastapenetan dagoela deritzogu, betiere ikuspuntu marxistatik, jakina. Laburbilduz modu telegrafikoan, azken urteotan gauza asko ikasteko aukera izan dugula esan dezakegu zentzurik positiboenean, hortaz, halako lidergoek berriz engainatuko ez gaituztelakoan gaude, azkenez etsai okupatzaileari eta eusko-espainiar burgesia esplotatzaileari amore ematen baitiete .

Nazio nahiz gizarte emantzipazio-prozesuak labur-labur berrikusiz gero, kontraesan pila bat, une gorenak eta txarrak ikus ditzakegu, eta Euskal Herria ez da salbuespena izan, are gutxiago, beraren kokapen geografikoa Europa dela kontuan izanda, munduko kapitalismoaren guneetako bat. Ildo horretan, euskal nazioa zapaltzen duten bi estatu inperialistek mundu osoan barrena agresio, inbasio, hilketa, harrapaketa eta abar ugari egiteaz gain, arazo larriak sortzen dizkiete euren sorterriko partetzat jotzen dituzten lurraldeei: Euskal Herria, Korsika, Bretainia, neokoloniak...

Bestalde, egiazkoa da gaur egun gure lurraldean edo beraren zati batean (segun eta nongoak diren datuak, Hegoaldekoak, Euskal Herrikoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak edo Nafarroakoa Garaikoak...), baliabiderik eza dela eta, 300.000 pertsonak (zifra ofizialak eta, horrenbestez, interesatuak), ez daukatela berogailurik eta ezin dutela gainerako oinarritzko beharrak bete. Halaber, egiazkoa da gaur egun hiruzpalau biztanleko etxebizitza batzuetan ez direla iristen ezta 1.500 euro eta pikora ere denen artean, adibide bat ipintzearren. Hala ere, gosez hiltzen ez badira ere, pobrezia maila geroz eta handiagoa da, kasu asko muga-mugan daudelarik.

Era berean, esan dezakegu eusko burgesia edo eusko-espainiar sendoa zegoela 1936/1939ko gerraren aurrean eta harreman estua zuela espainiar nahiz ingelesarekin (mendetasunean eta interes partekatuekin), eta antzeko egoera dugu gaur egun diferentzia logikoak alde batera utzita. Aipatuko dugu, bada, EAJ eta Eliza beti bi botere faktiko izan direla, eta oraindik badirela, laguntza handia izaten burges klasearen sendotasunean.

Aipatu panoramaren koordinatuetan igaro behar izan du Euskal Iraultza Sozialistak, horregatik, oraindik hasi gabe dagoela diogu. Halaber, hainbat eta hainbat urtetan errepikatutako konstantea: kontzienteenak eta posizio iraultzaileari eusten ziotenak idea nagusi batez jantzita zeuden, hots, aurrera egiteko asmoz, “gurdiari” indar osoz bultzada eman zitzaion. Horretara, gurdian euskal disidentzia osoa sartzen zen, klasekoa, klaseartekoa... Azkenean, aspaldidanik eta kontzesio bat bestearen atzetik, burgesia txikiak eta erreformismorik ospinduenak boterea bereganatu eta, lehen mailako borrokak aurrera eramanez, antzinako Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren zati handi bat deuseztatu edo sistemaren joko-eremura eramanez egin dute, norberak ulertutakoaren arabera.

Baliteke etsipenean erortzeko nahikoa arrazoi izatea, baina kontua da ez dugula horretarako astirik, ezta minutu erdi bat ere. Zeregin handia daukagu aurretik, izan ere, Euskal Iraultza Sozialista aurrera eramanez beharra daukagu, nahiz eta oso panorama iluna izan. Ildo horretan, ondo dakigu ez dela inongo kontzesio teorikorik, taktikorik eta estrategikorik egin beharrik, likidazionisten, erreformisten eta errebisionisten garaian egin ez zen bezalaxe. Azkenik, gurean (hor dugu FARCen adibiderik nabariena, baina ez da bakarra), gertatu ohi den bezala, burgesia txikiaren esku geratu da prozesuaren gidaritza, gure kasuan, Independentzia eta Sozialismoarekin zerikusirik ez duen prozesua, hain justu. Aurreikusteko modukoa bazen ere... ez da kexaka ibiltzeko garaia, egindako akatsak aztertzeko baizik.

Edonola ere, pistaren bat emango dugu, bada, herritar xumeok, zergatia ondo jakin gabe,

liderrak sortzen ohitu eta ezinbestekotzat jotzeraino iritsi gara, hori bai kontu kaskarra. Formazio politiko eta ideologikoa urritzen hasi eta ia desagertzeraino iresten den heinean, hori bai oso kontu kaskarra. Horrez gain, baldin eta iritzien arteko kontraste eta eztabaida sanoak, arrazoi bat edo besteagatik, ia desagerturik daudela konturatzen bagara, hori bai izugarritzko kontu kaskarra. Baldin eta helburu nagusiak tonu grisak eta zehaztugabeak hartzen hasten badira, hori bai izugarritzko kontu kaskarra baino txarragoa. Baldin eta, atzera begiraturik, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu osoa pixkanaka desmuntatua izan dela ikusten badugu (eta ez bakarrik 2009. urteaz geroztik), batzuek gehiegizko konfiantza izan dugula ulertuko dugu, dena dela, baten batzuk hainbestean ibili dira halako konfiantzaren aurrean. Edozein kasutan, nahikoa izan da 60 urtetako borrokaldia desmuntatua uzteko, horrez gain, oso zail jarri diete Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortzeko helburuei eutsi nahi dietenei.

Ez dizuegu ezer kontatzen egitura gorenetan egindako aliantzak aipatzean, beharrezko eztabaidarik egin gabe eta zor zaien obedientziari jarraiki, negoziazio baten esku uzten baitugu gure etorkizuna, nahiz eta aliantzak beteko ez diren eta askapenerako borroka etsaiaren lubakietan egiten ez diren jakin... Boterea hartzeko borroka ondorio guztiekin egiten ez denean, gaizki ibiliko gara. Era berean, afera birbideratzeko zailtasun handiak izango ditugu eta berriro ekiteko konplikazio handiegiak. Ez dugu ahaztu behar, egia esateko, zaila eta ezinezkoa sinonimoak ez direla.

Independentzia lortzeari dagokionez, ikusteko modukoa izango litzateke, atxilotetak, isunak, eguneroko tentsioa... hasiz gero, zer egingo luketen burgesia txikiak, sozialdemokratek eta euren kide diren gainerako frakzioek. Horren inguruan pentsatzen duguna argi aurreratu dezakegu bi zentzutan: alde batetik, independentzia lortzeko bidean ez daude inolako sufrimendurik jasateko prest, beste alde batetik, jakin badakite ez dagoela independentziarik iraultza soziala egin gabe.

Geure burua euskal iraultzailatzat jotzen dugunok lan eskerga daukagu hemendik aurrera. Lehenengo eta behin, azken 60 urteotan gertatutakoaren identifikazio zuzena egin eta analisisa behar bezain laburra eta gordina izan beharra dago. Hortik aurrera, argi eduki behar da teoria iraultzaileak praktika dakarrela berekin eta praxi barik ez dagoela benetako aurrerapenik, ez eta, bilatzen duguna lortzeko modukoa ote den jakiteko ageriko zantzurik ere.

Kontziente izan behar dugu den-dena eta ia guztiak gure kontra izango direla eta kale gorrian hotz handia egiten duela. Joko arauak markatzen dituen kapitala izaki, erabat barneraturik izan behar dugu sistema barrutik ezin daitekeela teoria eta praktika iraultzailerik eraiki. Horrenbestez, herri kontrabotere-mailak erabiltzeko dinamikak abiatu behar ditugu, hain zuzen ere, azkenean eraiki nahi dugunarekin lotura teoriko edo praktikoren bat duten dinamikak.

Hori dugu oztopoak saihestu eta aurrera egiteko bidea. Borroka iraultzailerik gabe ez dago ezer egiterik, borroka ez dela inoiz musutruk izango jakitun izanik, badakigu ere libre egingo gaituela. Aurrera beti, Euskal Herri independente eta sozialistaren alde!

Jon Iurrebaso Atutxa

Reforma o revolución social

¿Reforma de lo que un día soñamos y concreción de dicha reforma en lo que hoy y aquí es “posible” (es decir, lo que el capital vasco/español/francés nos permite) o seguimos apostando con todas las consecuencias por la Revolución Socialista Vasca?

Añadimos, con la suficiente humildad que la lucha nos ha dado, que la primera posibilidad está, de antemano, abocada al fracaso. Hoy en día no hay sitio ni siquiera para la socialdemocracia y su dorado y soñado edén, el estado del bienestar. El estado de bienestar fabricado para ahuyentar las ventajas del sistema soviético para con sus mujeres y hombres, hace ya tiempo que no tiene razón de ser. Por escenificar, la caída del muro de Berlín supuso que ese estado de bienestar podía desaparecer sin ningún serio problema. La tasa de ganancia del capital no admite tonterías. No seamos ingenuos. La socialdemocracia tuvo su valor cuando peligraba el orden burgués. Hoy la socialdemocracia es el centro de antaño que se permitía algún lujo por la “izquierda” de vez en cuando.

Hoy en día no hay espacio para jugar ni a demócratas. Ni siquiera en una democracia burguesa. El capital no puede permitir que agentes de su superestructura jueguen al obrerismo, por ejemplo. Hoy en día nadie se puede salir de la foto que le interesa a la burguesía. Hoy en día tenemos extrema derecha, derecha y centro derecha, todos encuadrados en la amplia derecha. Y de ese encuadre caricaturesco, pero cierto, no se salva ningún territorio. En todo caso se pueden exacerbar aún más ciertos comportamientos y siempre lo harán hacia la derecha. Orden, miedo, orden y un pretendido bienestar pisando a quien haga falta.

Así pues, y dependiendo de qué tiempo histórico tengamos en cuenta y en qué lugar, siempre nos encontraremos en el amplio campo de la izquierda con el eterno dilema. ¿Hacemos algo dentro de lo posible o nos metemos en un callejón utópico y de incierta salida? Pregunta/planteamiento con trampa. Hasta tal punto que a veces esa disyuntiva discurre sin que las verdaderas interesadas/os, la clase obrera y capas populares, se den cuenta de lo que se está cociendo. Las más, por desgracia.

Ante tanta insistencia por revisar todo lo que se ha hecho en estos últimos sesenta años, consideramos que éste histórico empeño revisionista no ha hecho sino empezar. Mirándolo desde la perspectiva marxista claro. Telegráficamente podríamos resumir que, en su sentido más positivo, hemos aprendido mucho en los últimos años. No pensamos que nos vuelvan a engañar con liderazgos que finalmente se entregan al enemigo que nos ocupa y a la burguesía vasco-española que nos explota.

Haciendo un somero repaso de los procesos de emancipación nacional y social, estos tienen muchas contradicciones, puntos álgidos, bajos y en lo que se refiere a Euskara Herria no iba a ser la excepción. Y mucho menos teniendo en cuenta su ubicación geográfica. Situada en uno de los centros del capitalismo mundial, como es Europa. Y siendo además una nación oprimida por dos Estados imperialistas con múltiples agresiones, invasiones, matanzas, despojos, etc. a lo largo y ancho del mundo. Y que, encima, les crean problemas serios en lo que pretenden que sea parte de su suelo patrio: Euskal Herria, Corcega, Breñaña,

neocolonias...

Por otro lado es cierto que hoy en día en nuestra tierra o en parte de ella (las cifras a veces son de Hegoalde, otras de Euskal Herria, otras de Vascongadas otras de Nafarroa garaia...) hay 300.000 personas (cifras oficiales y por tanto interesadas) que no pueden acceder a la calefacción y demás necesidades básicas por falta de recursos. Es verdad que hoy en día hay pisos ocupados por 3 o 4 personas que no llegan a 1.500 euros y pico entre todos, por poner un ejemplo. Y así y todo se puede decir que no se muere de hambre aunque el nivel de pobreza cada vez más sea mayor y en muchos casos límite.

También podemos afirmar que la burguesía vasca o vasco-española era fuerte antes de la guerra de 1936/1939. Mantenía una estrecha relación con la española e inglesa (de sumisión e interés compartido) y hoy en día la situación es parecida salvando las lógicas distancias. Y, simplemente señalar, que el PNV y la Iglesia han sido y son dos poderes fácticos que han ayudado a esa fortaleza de clase burguesa.

En las coordenadas de ese panorama ha tenido que discurrir el camino que pretende la Revolución Socialista Vasca. Por eso decimos que todavía no ha hecho ni empezar. También con una constante que se ha repetido a lo largo de muchos años y era que los más conscientes, los que mantenían una posición revolucionaria, estaban impregnados de una idea central y era la de que había que tirar para adelante con todo el "carro". Y en ese carro entraba todo tipo de disidencia vasca, de clase, interclasista... Al final, hace ya tiempo, de concesión en concesión, es la pequeña burguesía y el reformismo mas rancio, quien toma el mando y ha traído a una gran parte del antaño MLNV, que ha llevado adelante luchas de primer orden, a la nada. O al campo de juego del sistema. Según cómo se quiera interpretar.

Esto podría ser suficiente motivo para la auténtica desesperación, pero el problema es que no tenemos tiempo para ello. Ni medio minuto. Tenemos mucha tarea por delante. Tenemos que llevar la Revolución Socialista Vasca adelante por muy negro que esté el panorama. En ese sentido sabemos que no hay que hacer concesiones teóricas ni tácticas ni estratégicas. No se hicieron en su tiempo con los liquidacionistas ni tampoco con los reformistas o revisionistas. Y al final desde casa (ahí tenemos el ejemplo de las FARC como el más visible pero no es el único), como suele ser casi siempre, nos sale la pequeña burguesía y toma las riendas de un proceso que, en nuestro caso, nada tiene que ver con la Independencia y el Socialismo. Y esto era previsible pero... Pero no es tiempo de gemir. Sí de saber dónde se ha errado.

Y en todo caso alguna pista. Cuando los de a pie no sabemos muy bien por qué empezamos a crear líderes y acostumbrarnos a ello hasta considerarlos imprescindibles, mal asunto. En la medida en que la formación política e ideológica empieza a escasear hasta casi desaparecer, muy mal asunto. Si encima vamos percibiendo que la sana discusión y debate está casi desaparecido justificado por uno u otro motivo, el asunto está fatal. Si coincide en que los objetivos principales empiezan a tomar tonos grises, de indefinición, el asunto está peor que fatal. Si miramos hacia atrás y vemos cómo se ha ido desmontado poco a poco todo lo que fue el MLNV (y no hablamos solamente a partir del 2009) entenderemos que algunos y algunos hemos sido demasiado confiados y ante esa confianza algunos y algunas han jugado medianamente bien. En todo caso, suficiente para desmontar 60 años de lucha y dejarlo muy

difícil a los que quieran continuar con los objetivos de independencia y socialismo para Euskal Herria.

No os contamos nada si se hacen alianzas desde arriba sin el necesario debate y por obediencia debida a las estructuras y delegamos nuestro futuro en una negociación, a sabiendas que se incumplirán y que las luchas de liberación no se dirimen en las trincheras del enemigo... Cuando no se lucha para tomar el poder con todas las consecuencias, mal andaremos. Estaremos con una muy difícil reconducción y una vuelta a empezar complicadísima. En todo caso, no debemos olvidar que lo difícil no es sinónimo de imposible.

Habría que ver a la pequeña burguesía y a los socialdemócratas, y demás fracciones afines, qué harían por conseguir la independencia cuando comenzaran las encarcelaciones, multas, tensión diaria... Pensamos que podemos adelantar una afirmación clara en dos sentidos. Por un lado, no están dispuestos a sufrir por conseguir la independencia. Por otro, saben que no hay independencia si no va acompañada de la revolución social.

En lo que respecta a los que nos consideramos revolucionarios y revolucionarias vascas, no es poco el trabajo que nos queda de aquí en adelante. Primero identificar correctamente que es lo que ha ocurrido en los últimos 60 años. Y ese análisis ha de ser todo lo conciso y crudo que tenga que ser. De ahí en adelante habrá que tener claro que la teoría revolucionaria conlleva su práctica y sin praxis no hay avances reales y señales palpables que lo que perseguimos se puede conseguir.

Tenemos que ser conscientes que tendremos todo y casi todos en contra y que en la calle hace mucho frío. Tenemos que tener absolutamente interiorizado que, siendo el capital quien marca las reglas del juego, desde dentro del sistema no se puede construir una teoría y práctica revolucionaria. Tenemos que comenzar con dinámicas que conlleven niveles de contra poder popular. Dinámicas que tengan alguna ligazón teórica o práctica con lo que finalmente queremos construir.

En ese camino iremos salvando obstáculos y avanzando. Nada haremos sin lucha revolucionaria, sabiendo que la lucha nunca será gratis pero sabiendo también que nos hará libres. Siempre adelante por una Euskal Herria Independiente y socialista.

Jon Iurrebao Atutxa 23.10.18

<https://eh.lahaine.org/reforma-o-revolucion-social>